



HOBI SEPTIKOA EZABATZEKO LIZENTZIA

- * Eraikineko saneamenduaren sare partikularrari dagokion plantako krokisa, zeinean gaur egungo egoera eta aldaketaren ondoren geratuko dena ageri den. Era berean, saneamenduko udal sare orokorrari txertaketa zehazki non egingo zaion adierazi beharko da.
- * Egin behar diren obrei buruzko aurrekontua, diru-ataletan zehazturik.
- * Segurtasunari eta Osasunari buruzko Oinarrizko azterketa, Tekniko eskudunak egina eta dagokion Elkargo Profesionalak onetsia, urriaren 24ko 1627/97 ED-an zehaztutakoaren arabera (256 zenbakidun BOE).

Gomendioa.-

Eskaria egin aurretik, Ingeniaritza Arloan (Udaletxeko 3. solairuan) informazioa eskatuko da dagokion eraikineko hobi septikoa ezabatu daitekeen jakiteko.

Ingeniaritza Arloak aipatu eraikineko hobia kentzea onesten badu, bidali beharreko aurrekontuan jaso beharreko hainbat baldintza bete beharko dira. Hona hemen:

- a) Hobi septikoa hustu eta sakon garbitu beharra dago. Lan horiek gauzatzean segurtasun neurri zorrotzak hartu behar dira. Behin garbituta, material pikordun trinkotuarekin bete beharko da mintzagai dugun hobia. Bestalde, obrak gauzatu bitartean, aurreikusi egin beharko da hobi septiko horretara doazen ur zikinak jaso eta kanalizatzeko modurik egokiena zein den.
- b) Oro har, eraikinetik datozen ur zikinen zorrotzenak kutxeta batean jasoko dira. Kutxeta hori, halaber, arakatu daitekeen etxe-sifoiarekin lotuta egongo da. Etxe-sifoi hori egoki mantendu beharra dago, trabatzerik eta usain txarrik sor ez daitezten. Aipatutako bi kutxetak titularitate pribatuko lurretan jarri beharko dira, ez baita jabari publikoan lekurik hartzen utziko.
- c) Etxe-sifoiaren irteera-tutuak 200mm-ko diametroa izango du gutxienez eta PVC-zkoa (teila) izango da. Era berean, beharrezko malda ezarriko zaio, erregistroko putzua baino lehen metaketarik eta inkrustaziorik egon ez dadin. Tutu horren eta hobi septikoaren aireztapen-bidea lotuko dituen konexio bat egingo da, kolektoreak beharrezko oxigenazioa izan dezan.
- d) Obrak amaitutakoan Udala jakinaren gainean jarri beharra dago. Ingeniaritza Alorrak, ondoren, ikuskapeneko bisita egingo du. Dena zuzen bada, aurrez jarritako fidantza itzuliko da. Aipatu berri dugun fidantza, bidenabar, obrak gauzatu bitartean kaltetu litezkeen hirigintza-elementuak konpontzeko jarri ohi da.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: HILABETE 1.

AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.